

## Etzi, Bide Ertzean

'Esan bare' diskoa  
aurkeztu du ▶ 2



# Aldundiak 200 etxebizitza eraikiko ditu Zizurkilen

**2006** ▶ Datorren urtean hasiko dira lanak; etxe tasatuak izango dira, salmentan eta alokairuan

**PLAZAN** ▶ Joxe Arregi plaza inguruan eraikiko dira; Udalak aldaketa ugari egin nahi ditu ▶ 3



## Ipuinak eta marrazkiak Haur Literaturaren Egunean

**ALEGIA** ▶ Haur Literaturaren Nazioarteko Egunaren harira, atzo San Joan eskolako ikasleek Berunezko soldaudutxoa ipuina irakurri zuten eta ipuin honi buruzko marrazkiak egin zituzten atzo eta egun osoz Inaxio Begiristain kultur etxean ikusgai jarri zituzten —argazkian—. Liburutegira joan ziren ikasle, irakasle eta

gurasoek ere liburu bera irakurri zuten elkarrekin. Hala ere haur irakurle gutxi daude liburutegian eta arduradunak kezkatuta daude. Batez ere «azterketa garaian» joaten direla esan dio HITZARI liburutegiaren arduradunak. Urtarrilean 230 bisita izan zituen, gehienbat haurrak, eta hauen artean, neskak. N. LATABURU ▶ 5

TOLOSA ▶

## Kultur eskaintza oparoa apirilean

Musika, antzerkia,  
erakusketak, azoka,  
hitzaldiak... ▶ 2

IBARRA ▶

## 'Apirila gorria' antolatu du Bilguneak

Hitzaldiak, zinema,  
mus, karibear festa...  
izango dira ▶ 6

LEITZA ▶

## 'Parle vu eusquera' antzezlan, herriz herri

Hiru leitzarrek egin  
dute testua eta  
beharrezko guztia ▶ 7

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **ARANDIA jatetxean 4 lagunentzako bazkari edo afari eder bat zozketatuko dugu**



## KULTURA ▶



Imanol eta Jon Ander Ubeda, Bide Ertzean taldeko kideak, atzo, diskoaren berri ematerakoan. I. ETXEBESTE

## «Une gozoan gaude orain»

Bide Ertzean-ek disko berria aurkeztuko du etzi Leidorren: 'Esan bare'

## I. ETXEBESTE

Une gozoan omen daude orain. Hala diote Bide Ertzean-eko kide Imanol eta Jon Ander Ubedak taldearen berri ematerakoan. *Esan bare*, azken diskoa aurkezteko hogeitik gora kontzertu eman dituzte Euskal Herrian zehar urritik hona, eta aurkezpen biraren amaieran direnez, haien jaioterria ezin hutsik egin. Tolosan eskainiko dute zuzeneko etzi, Leidorren, 22:30ean.

Laugarrenez ariko dira areto horretan ostiralean, eta gogotsu daudela dirudi. Izan ere, «berezia» izan da beti Tolosan jotzea, «lagunen eta senitartekoen aurrean» aritzeagatik. Urriatik apirilera batean eta bestean jardun izanak mesede egingo die, gainera, eta «forman» etorriko direla diote.

*Esan bare* diskoak «harrera ona» izan du: salmenta aldetik kopuru «egokia» ari da lortzen, eta jasotako kritikak aldekoak izan dira. Ekoizpen lanari ga-

rrantzia handiagoa eman izanaren ondorio da, agian, saikera berezia egin dutelako azken diskoa atontzeko. «Bi urtetik behin ateratzen dugu disko berria, eta azkena prestatzeko urtebete hartu dugu. Kontzertuak alde batera utzita, urte osoan aritu gara horretan».

Joserra Senperena pianojolearen laguntza izan dute Bide Ertzean-ekoek azken bi diskoetan, eta «nabarmena» da horren eragina: «Taldearen soinua gorpuztu hartu du, konpaktatu egin gara denok, eta hori emanaldietan ere igartzen da». Erreperitiora hobeto egokitzen delakoan, areto itxietan aritu dira orain arte, eta hemendik aurrera gune irekiekin hasiko dira pentsatzen, udako emanaldietara moldatzeko.

2003ko neguan jardun zuten azkenekoz Tolosan. «Berriro etortzerako denbora pasatuko da». Era akustikoan berreskuratuko dituzte hasierako kantutak etzi, disko berrikoak jo baina lehen eskaintzeko. ◀

# Kulturaren oparotasuna

Tolosako Udalak eskaintza zabala egin du apirilera; alor ezberdinak jorratzen dituzten ekitaldiak izango dira herrian

## IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Udalak kultur egitarau oparoa prestatu du apirilera. Egindako eskaintza zabala da, eta, hilabetero bezala, alor ezberdinak jorratzen dituzten ekitaldiak *ekarri* nahi izan dituzte oraingo honetan. Hala ere, musika emanaldiak dira, horien artean, ugariak. Hona hemen, atalez atal eta eguneko aukera emango duten ekimenak, zehaztuta:

## AKORDEOI TOPAKETA

**Beotibarren.** Hilaren 10ean, igande honetan, akordeoi topaketa egingo dute herriko soinu-jole gazteek, goizean zehar, Beotibar pilotalekuan. Hainbat pieza joko dituzte herritarren aurrean.

## ANTZERKIA

**'Groau!'** Hika Antzerki Taldearen antzezlan haurrei zuzendutakoa da bereziki, eta hilaren 16an eskainiko dute, Leidor zinema aretoan, 17:00etan. **'Decameron'**. Ados Teatroaren lana hilaren 29an eskainiko dute, Leidor zinema aretoan, 22:30ean hasita.

## AZOKA

**XVI. Lore eta Landare Eguna.** Udalak antolatuta, XVI. Lore eta Landare Eguna ospatuko dute hilaren 23tik 25era Berdura Plazan.

## BIDEO EMANALDIA

**'Bag dag rap'**. Galtzaundi Euskara Taldearen eskutik, bideo emanaldia izango da hilaren 26an, asteartez, 19:00etatik aurrera.

## BIDE ERTZEAN ▶

Bide Ertzean taldeak Leidor aretoan ostiralean eskainiko duen kontzerturako sarrerak Kultur Etxean dira salgai, goiz eta arratsalde. Ostiralean bertan leihatilari ere izango dira salgai, emanaldiaren aurretik. *Esan Bare* disko berriko aurkezpen kontzertua 22:30ean hasiko da.

rrera. Kultur Etxean izango da rap-ari buruzko bideo emanaldia.

## ERAKUSKETAK

**Mikel Azpillagaren pinturak.** Hilaren 23a bitarte izango da erakusketak Aranburu Jauregian. Astelehenera eta jaiegunetan izan ezik, egunero ikus daiteke, 17:30etik 20:30era.

**Aitor Ruiz de Eginoren eskulturak.** Hilaren 16a bitartean, egunero ikus daiteke erakusketak arratsalde, astelehenera eta jaiegunetan izan ezik, Aranburu Jauregian.

**Miren Gonzalezaren pinturak.** Apirilaren 23tik maiatzaren 28ra izango da zabalik erakusketak, Aranburu Jauregian. Bisitatzeko aukera: astelehenera eta jaiegunetan izan ezik, 17:30ak eta 20:30ak bitartean.

## GAZTE TOPALEKUA

**Asteburuero.** Gazteria Sailaren Topalekua asteburuero, larunbatetan eta igandetan, izango da zabalik, 16:30etik 20:30era, Kultur Etxeko areto nagusian 13 eta 17 urte bitartekoentzat.

## HITZALDIA

**'Euskara lan munduan, industriari eta nekazaritzan.** Hilaren 19an eta 20an eskainiko dute Galtzaundi Euskara Taldeak antolatutako hitzaldia Kultur Etxean, 20:00etan hasita.

## MUSIKA

**Bide Ertzean.** *Esan bare*, bere azken diskoa aurkeztuko du Leidorren, etzi, 22:30ean.

**Gari.** *O-tik* disko berria aurkeztuko du hilaren 22an Leidor aretoan eskainiko duen kontzertuan. 22:30ean hasiko da.

**MAK.** MAK taldearen kontzertua izango da etzi, Bonberenean, 22:30ean hasita.

**Berri Txarrak.** Berri Txarrak taldekoek kontzertua eskainiko dute Bonberenean hilaren 15ean, 22:30ean hasita.

**Zea Mays eta Electra.** Hilaren 22an bi kontzertu izango dira Bonberenean, 22:30ean: Zea Mays alde batetik, eta Madrilgo Electra taldea bestetik.

**Manolo Cabezabolo eta King Putreak.** Bonberenean, hilaren 23an, 22:30ean. King Putreak taldea Madriletik etorriko da.

**Neubat.** Hilaren 29an, Bonberenean, 22:30ean.

**Tsezne eta DJ Amsi.** Bi talde horiek hilaren 30ean jardungo dute Bonberenean, 22:30ean. Talde gehiago ere izango dira.

AMEZKETA ▶

'Un lugar en el mundo' filma zine zikloan

Zine zikloaren baitan, Amezketa gela polibalentean *Un lugar en el mundo* filma ikus-teko aukera izango da. Emaldia 21:00etan hasiko da eta bukatu ondoren filmaren inguruko solasaldia egiteko aukera izango da, txokolatea bizkotxoekin eta guzti. Adolfo Aristarain zuzendari argentinarraren filma ezagun honetan, besteak beste, Federico Lupppik, Cecilia Rothek eta Jose Sacristanek parte hartzen dute.



Filmaren irudi bat. HITZA

AMEZKETA ▶

'Hitzak patriketan' umeentzako antzezlan gaur

Amezketako Kultur Astearen baitan Hankatxo taldearen *Hitzak patriketan* umeentzako antzerkia eskainiko da gaur 17:00etan, gela polibalentean. Euririk ez bada behintzat, frontoian egingo da antzezlan.

IRURA ▶

Loatzoko ikasleen kontzertua gaur elizan

Loatzo musika eskolako ikasle irurarrak eta anotarrek kontzertua eskainiko dute gaur arratsaldeko 19:00etan Irurako elizan. Aste Santuen inguruan Loatzo eskolak kontzertuak eman zituen hainbat herritan, baina Irurakoa atzeratu behar izan zen eta gaur izango da emaldia hori. Musika tailerretan parte hartzen duten txikienez aparte, bakarka eta taldeka ariko dira instrumentuekin ikasten ari diren ikasleak.

ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA



Joxe Arregi plaza inguruan aldaketa handiak izango dira, tartean, Aldundiaren etxebizitzak eraikitzea. i.e.

# Foru Aldundia 200 etxebizitza eraikitzen hasiko da 2006ean

Herrian hirigintza aldetik aldaketa handiak izango dira datozen urteetan, tartean Joxe Arregi inguruko lurretan

IMANOL GARCIA

Datozen urteetan Zizurkil en aldaketa ugari izango dira hirigintzan. Esaterako, Etorlur Gipuzkoako Lurra S.A. Foru Aldundiaren sozietateak herrian prezio tasatuko 200 etxebizitza eraikitzeko asmoa du, hurrengo urtean hasita. Eraikiko diren etxebizitza horien %25 gutxienez udalerrian bizi direnentzat izango da. Esleipendunari etxebizitza emango zaio 75 urteko azalera eskubidearekin.

Etxebizitza batzuk erosi ahaliko dira eta beste batzuk alokairuan jarriko dira. Salmenta prezioari dagokionez, eraikitzeko proiektua eduki ondoren jarriko da, baina beti metro koadroko 2.000 euroko gehieneko modularen gainean. Alokatzeko etxebizitzaren errenta etxebizitzaren salmentaren prezio teorikoaren %4an ezarriko da.

Foru Aldunditik azpimarratu nahi dute etxebizitza eskuratzekoan eskatuko dituzten baldintzak gehieneko irabaziei dagokionez, Eusko Jaurlaritzak jartzen dituenekin alde handia dagoela. Eusko Jaurlaritzak 33.000 euro jartzen ditu eta Foru Aldundiak 48.000 euro-raino zabaltzen du, «beren irabazien direla eta, babes ofizialeko etxeetatik kanpo geratzen

den jende multzoa hor sartzeko, izan ere prezio libreko etxebizitzak eskuratzeko zailtasun handiak baitituzte», azaldu dute Aldunditik.

Udala, «gustura»

Udala «gustura» dago Foru Aldunditik azaldutako asmoarekin. Marian Lazkano alkateak HITZARI adierazi dioenez, «herri bezala ez zaigu etxebizitzak egitea bakarrik axola. Urbanizazioaren aldetik lan txukunak egitea nahi dugu eta hori gertatzeko lanean ari da Udala».

Aldundiak etxebizitzak egingo diren eremua ez badu zehaztu ere, Frasieroko lurretan izango da seguraski, Joxe Arregi plaza eta elizaren atzean dagoen lur-eremuan Udalak defendatuko duen gauzetako bat, esaterako, futbol zelaila kenduz gero, urbanizazio berria beste bat egitea edo behintzat kirolerako eremu bat mantentzea izango da.

Hain zuzen, Udalak Joxe Arregi plaza moldatzeko asmoa du eta horretarako arau subsidiarioen aldaketa puntuatuta bideratzen ari da. Foru Aldundiak egin nahi dituen etxebizitzetarako, ordea, arau subsidiarioen aldaketa egin behar da. Aldaketa hori egiteko batzorde bat osatu da

BALDINTZAK ▶

Foru Aldundiak eraikiko dituen etxebizitzetako bat eskuratu nahi dutenek baldintza batzuk bete beharko dituzte.

- ▶ Azken hiru urteak Gipuzkoan bizitzea.
- ▶ Azken hiru urtetan beste etxebizitzarik ez izatea.
- ▶ Famili unitate bakoitzeko 9.000 euroko eta 48.000 euroko diru sarrera ponderatuak edukitzea.

Udaleko ordezkariekin eta zenbait herritarrekin. «Bilerak egiten ari gara hamabostean behin», azaldu du Marian Lazkanok. «Oso garrantzitsuak dira bilera hauek, arau subsidiarioak Udalaren funtzionamenduaren bizkar hezurra direla esan daiteke».

Datozen urteetarako, beraz, herria itxuraldatu egingo da. Joxe Arregi plaza inguruak aldaketa handiak izango ditu. Bestalde, Asteasurako bidean gelditzen den azkeneko urbanizazioaren atzean 115 etxebizitza eraikiko dira, horietatik 33 babes ofizialekoak. Ubare eta Aurrerako auzoetan ere urbanizazio lan handiak egingo dira urte hauetan.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Baliarrain.** Medikua: 88 90 03
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarralde.** Osasun etx.: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Orendain.** Medikua: 65 55 95
- Orexa.** Medikua: 68 22 28
- Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 00 68 00
  - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
  - ▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
  - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
  - ▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25
  - ▶ DYA: 67 25 36
  - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
  - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
  - ▶ Tolosa gasa: 67 53 20
- Villabona-Aiztondo.** Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
- ▶ Leitzarano autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888
- ▶ Txolarre Irratia: 69 80 38
- ▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Ugarte, M.T. Euskal Herria 46 (Ibarra). 943 67 32 74. Larraia, M.I. Elbarren 95 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18. tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aiz.** 687 41 00 22. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoeta.** 687 41 00 22 anoeta@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarralde.** 687 41 00 32. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzalde.** 687 41 01 18. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

EAE-KO HAUTESKUNDEAK ▶



## Etzi, TB-ren ekitaldia

**TOLOSA** ▶ Tolosa Bizirik plataformak ekitaldi bat antolatu du etzirako, larunbata, 12:00etan udaletxearen aurrean. Bere jarrera Hauteskondeei buruz eta boto eskaera azalduko du. Atera duen aldizkari txikia banatuko du. Aldi berean, Udalak «diru publikoarekin eta kanpainan» kaleratu berri duen aldizkaria kritikatu zuen TB «kontuan ez hartzeagatik» eta «Gerontologikoa bezalako gai garrantzitsuak» ez aipatzeagatik. J.SAIZAR



## Catalunya Radio Iruran

**IRURA** ▶ Hauteskunde kanpainaren barruan, EAEko beste herri batzuekin batera, Irura aukeratu du Catalunya Radio irrati kateak erreportai bat egiteko. Atzo izan ziren kazetariak Marimi Ugalde alkatearekin —argazkian— eta beste hainbat herritarrekin herriaren eta Udalaren egoeraren berri jasotzeko. Datorren astean emango dute Iruran eta beste herrietako grabatutako erreportaiak. I.GARCIA

# Eskualdeko hainbat lagun zerrendetan

Kartel gutxi ageri dira kaleetan eta ekitaldi handi asko ere ez da izango

JOXEMI SAIZAR

Apirilaren 17ko EAEko hauteskondeetan Tolosaldeko hainbat hautagai agertzen da alderdien zerrendetan. Gipuzkoan, guztira hamar zerrenda daude onartuta: PP, EAJ-EA, Aralar, Berdeak-PACMA, EB-IU, PSE-EE, UA, PCTV-EHAK, POSI eta PH. EAJ-EA koalizioak ditu eskualdek ordezkari gehien: lehen postuan Joseba Egibar Lizartzako alkatea ageri da, 3.ean Bakartxo Tejeria Villabonako alkatea, 4.ean Rafa Uribarren Anoetako zinegotzi ohia, 5. ean. Onintza Lasa Tolosako zinegotzia eta EAko komunikazio arduraduna, 25. ean Olatz Peon Tolosako zinegotzia eta 1. ordezkari gisa Xabier Zabala Villabonako zinegotzia. Ezker Batuak Antton Karrera amezketarra aurkezten du lehen postuan. PSE-EEk 1. ordezkari gisa Jose Luis Vela tolosarra jarri du. PPK 21. postuan jarri du Iñigo Manrique Villabonako zinegotzia. EHAK-ek Aitor Zubiria tolosarra jarri du 1. ordezkari bezala. Ilegalizatu duten Batasunak Inazio Agirre Tolosako zinegotzi ohia eta AuBko zerrendaburua jarri zuen 19. postuan. Beste zerrenda guztietan ez dugu eskualdeko inor topatu, ezta onartu ez duten

Aukera Guztiak zerrendan ere. Lehen ere legebiltzarkide diren Egibar, Tejeria, Uribarren, Lasa eta Karrera dira karguan errepikatze aukera gehienak dituztenak. Datozen egunetan, alderdi bakoitzeko ordezkariekin elkarrizketa luzeak egiteko asmoa du HITZAK.

### Kartel gutxi paneletan

Hauteskondeei buruzko kartel gutxi ikus daitezke Tolosaldeko kaleetan udalek horretarako jarri dituzten paneletan. Alderdi gutxi erabili dituzte. Horietako asko hutsik daude. Bestalde, beste errebindikazio batzuk jasotzeko erabili dira panel horiek, AHTren aurkako adibidez.

Ekitaldiei buruz ere antzeko zerbait esan daiteke. Aurreko egunetan izan diren mitin eta ekitaldi nagusien ondoren, formatu txikiagoko ekitaldiak daude antolatuta: hitzaldiak, bilerak eta, aurreko larunbatean bezala, hurrengoan ere merkatuan propaganda banatzen ariko dira alderdi nagusienetako hautagaiak.

Bestalde, gaur da botoa koreoz emateko behar diren paperak eskatzeko azken eguna. Postetxean bertan egin daitezke eskaera.

### EKITALDIAK ▶

Hauek dira hauteskunde kanpainaren barruan, aste honetan gure eskualdean antolatu diren ekitaldiak. Guztiak Batasunak *Orain herria, orain bakea* lelopean antolatutakoak dira. Beste alderdiek ez dute ekitaldirik.

### GAUR

**Anoeta.** Hauteskondeei buruzko herri batzarra 19:00etan udaletxean.

**Berastegi.** Hitzaldia udaletxean 20:30ean. Eider Imaz.

### BIHAR

**Aduna.** Hitzaldia Elordi plazan 20:00etan. Eider Imaz.

**Asteasu.** Hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan. Herriko hizlariak

**Lizartzak.** Afari-hitzaldia Txirrita elkartearen 21:00etan. Eider Imaz.

**Zizurkil.** Hitzaldia Aiztondo kultur etxean 20:00etan. Joxean Etxeberria.

### ETZI

**Tolosa.** Tolosa Bizirik-en ekitaldia udaletxearen aurrean 12:00etan: jarrera azaldu, boto eskaera egin eta aldizkaria banatu.

\* **Bilbo.** Eskubide zibil eta politikoak urratzea salatzen manifestaziora larunbatean joateko hainbat deialdi egin dituzte eskualdea: Anoetan ohiko lekuetan eman behar da izena; Lizartzatik 15:30ean abiatuko da autobusa; Tolosatik 15:00etan aterako da autobusa Triangulotik.

Zure botoa  
**Aralar**  
aro berria, bide berriak  
erabaki ezkerretik

ALEGIA ▶ KULTURA

# Etorkizunerako literatura ereinez

Apirilaren 2ko Haur Literaturaren Nazioarteko Egunaren harira, San Joan eskolako ikasleen marrazki erakusketa eta 'Berunezko soldadutxoak' liburuaren irakurketa antolatu zuten atzo Kultur Etxean



Haurrek adi-adi entzun zioten *Berunezko soldadutxoak* ipuinari, guraso, ikasle eta irakasleen ahotan. n. l.



Guraso, ikasle eta irakasleek ipuinaren zati bana irakurri zuten. n. l.



Ikusmina piztu zuen eskolako haurkoen marraki erakusketak. n. l.

NOELIA LATABURU

**T**eknologia berrien aroan gazteenek eskura dituzte punta-puntako jokoak, bideo jokoak, ordenagailuak, interneterako konexioak... Hau guztia dela eta, gero eta errazagoa suertatzen zaie bestelako ekimen kulturalak baztertzea. Hau ekiditeko bide bat irakurmenaren sustapena bultzatzea litzateke eta horixe egiten saiatu ziren, hain zuzen ere, atzo Alegian Haur Literaturaren Nazioarteko Eguna harira antolatutako ekitaldiekin.

*Berunezko soldadutxoak*. Haur liburu hau izan zen aitzaki. San Joan eskolako umetxok, egunetan zehar liburu hau garatu zuten eta honen gaineko marrazkiak egin zituzten, atzo egun osoz Inaxio Begiristain kultur etxean erakusketa batean ikusgai jarri ziren marrazkiak, alegia.

Halaber, *Berunezko soldadutxoak* ipuina bera irakurri zuten bi eta hamabi urte bitarteko Kultur Etxeko liburutegira hurbildu ziren haurrek. Guraso, irakasle eta ikasleek elkarrekin irakurri zuten liburuxka, emeei irakurmenarekiko grina irakatsi nahian.

Dena den, ekimen hauek ez dira nahikoak, izan ere, liburuak

irakurtzen dituzten haurren datuak kezagarriak dira. «Nik egunean bi ordu inguru ikusten dut telebista», aitorzen zuen Kultur Etxean zegoen haurtxo batek. Beste batek, berriaz, berak soilik «eskolan bidalitako liburuak» irakurtzen dituela zioen. Telebista, bideo-jokoak, ordenagailuak... Hauek dira mehatxuak eta ikasle, irakasle zein gurasoen lana da, beraz, hauen guztien arteko oreka lortzea.

## Emakumeak irakurleena

Liburuek bigarren mailako garrantzia hartzen dute Alegiako gaztetxoenen artean. Fatima Munduate, Inaxio Begiristain kultur etxeko liburutegiko arduradunak azaldu duenez, «liburutegia gehiago erabiltzen dute azterketa garaian lan egiteko, ipuinak eta eleberriak irakurtzeko baina» eta edozein aitzakia baliatzen dute liburutegira ez etortzeko, «eguraldi onarekin parkera joatea» esaterako. Bestalde, emakumeek sarriago erabiltzen dituzte liburutegiaren zerbitzuak Alegian, gizonetako baino.

Inaxio Begiristain liburutegiak liburu, bideo eta DVD-ak eskaintzen ditu maileguan, eta guztien artean «gehienbat li-

buruak» aukeratzen direla azaldu du Fatima Munduatek, oraindik ere gainontzeko zerbitzuak «zabaltzeko» baitaute. Liburu hauen artean, gainera, eleberriak eta haur eta gazte liburuak dira aukeratuena; helduagoek mailegaturikoak izaten dira, batik bat. Guztira 828 bazkide ditu liburutegiak. «Neguan maileguak igotzen dira», azaldu du Munduatek; horrela, 230 bisita jaso zituen liburutegiak urtarilean, hauek 144 haurrak zirelarik eta helduak 86. Hauen artean, 94 gizonetakoak izan ziren eta 136 emakumeetakoak. Guztira, 99 liburu mailegatu zituzten hila honetan, 30 haurrak harturikoak, eta 54 helduak.

**Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?**

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez, 800 enpresa, kateak, dendak, jatetxe... eta era guztietako erakunde bakoitzak gehiagik euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

[www.bai.euskarari.org](http://www.bai.euskarari.org)

**Bai Euskarari Ziurtagiria!**

**902 430026**

**Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!**

hitza

IBARRA ▶ GIZARTEA

# Ibarrako Formakuntza eta Eraldaketaarako Bilguneak 'Apirila Gorria' antolatu du

Hitzaldiak, zinema, Mus Txapelketa, Karibear Festa eta infusio tertulierekin osatzen da egitaraua; gaurko Alizia Sturtzeren hitzaldiarekin hasiko da

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako Formakuntza eta Eraldaketaarako Bilguneak hilabete honetarako *Apirila Gorria* izenpean askotariko jardunaldiak antolatu ditu gaur hasita.

«Zenbat aldiz oihukatu dugu Gora Euskal Herri Sozialista! Baina zer da Sozialismoa? Zer egiten dugu honen alde? Zein sistematan bizi gara? Eroso, libre edo esklabu bizi gara?», galdera hauek eta beste hainbat gaien inguruan hitz egin eta jakinduria aberasteko, hainbat hitzaldi eta ekitaldi antolatzearen beharra ikusi du Bilguneak, eta hori izan da lehendabiziko aldiz egingo den *Apirila Gorria* hilabetearen helburua. Jende guztia gonbidatu nahi izan dute hitzaldi eta ekitaldietara, presentzia nahiz entzute hutsa eskertuko dutela esanez, hitzaldi hauetan asko ikasi daitekeela ziur baitaude, eta informazioa jasotzea ez baita denbora galtzea.

Egitarauari dagokionez, askotarikoak dira antolatu dituzten ekitaldiak. Hitzaldiak eta zi-

nema izango dira nagusi, eta horiez gain, mus txapelketa, karibear festa eta infusio tertulia ere izango dira.

Alizia Sturtzek gaur Gazte-txean eskainiko duen *Kapitalismoaren eragina guregan* hitzaldiarekin hasiko da *Apirila Gorria*. Aste honetako prestatu dituztenekin jarraituz, Ernesto Che Guevara gai nagusi duten bi pelikula izango dira ikusgai igandean Gazte-txean.

Datorren astean, osteguneko hitzaldiaz gain, mus txapelketa egingo da igandean. Bikoteko 10 euro ordaindu beharko dira izen emateko eta lehenengo hiruentzat sariak emango dituzte: arkumea, gazta eta 4 ardo botila lehenengoari, 5 txuleta eta 3 ardo botila bigarrenari eta 2 baserriko oilasko eta 2 ardo botila hirugarren bikoteari.

Apirilaren 29an izango den infusio tertulierekin amaituko da egitaraua. Tartean, hitzaldiak eta pelikula gehiago izango dira eta baita saltsa, dantza, *reggae*-a, ligoteoa...izango dituen karibear festa ere.

## APIRILA GORRIA ▶ EGITARAUA

### LEHEN ASTEA

**Gaur:** Alizia Sturtzeren hitzaldia 19:00etan  
Gazte-txean: *Kapitalismoaren eragina guregan*.

**Apirilak 10:** Zine-kluba: Ernesto Che Guevara. 18:00etan Che iraultzaileari buruzko dokumentala. 20:30ean *Diarios de una motocicleta* pelikula. Ibarrako Gazte-txean.

### BIGARREN ASTEA

**Apirilak 14:** Maite Seguroa. Hitzaldia 19:00etan  
Gazte-txean: *Feminismoaren ekarpenak marxismoan*.

**Apirilak 17:** Mus Txapelketa 16:00etatik aurrera  
Gazte-txean.

### HIRUGARREN ASTEA

**Apirilak 20:** Ainhoa

Etxaideren hitzaldia 19:30ean  
Kultur Etxean: *Langileak gizarte inperialistan*.

**Apirilak 22:** Karibear festa: mojitoa, saltsa, jokoak, kea, herri giroa, *reggae*, dantza, ligoteoa, iraultza, jai...  
22:30ean Gazte-txean.

**Apirilak 24:** Zine-kluba: 17:00etan AEBetako *Pantera beltzen historia* pelikula  
Gazte-txean.

### LAUGARREN ASTEA

**Apirilak 26:** Kike Zurutzaren hitzaldia 19:30ean  
Gazte-txean: *Kapitalismoaren aurkako borroka moldeak Euskal Herrian*.

**Apirilak 29:** Joseba Alvarezen hitzaldia 19:30ean  
Gazte-txean: *Euskal Herri sozialista*. 22:30ean infusio tertulia denon artean Ibarrako Gazte-txean.

GAZTELU ▶

## 'Las vacaciones del señor Hulot' bihar Kontzejun

Astero bezala, bihar pelikula bat izango da ikusgai Gazteluko Kontzejun. 19:30ean hasita *Las vacaciones del señor Hulot* ikusteko aukera izango da.

IBARRA ▶

## Argazkigintza ikastarorako izen-ematea

Ibarrako Benito Izagirre Kultur etxean 2004-05 ikasturterako eskaini diren tailerren artean Iñigo Royo argazkilari tolosarraren ardurapean Argazkigintza II- Sakonketa tailerra antolatu da. Lantegi honetan, besteak beste, argazkigintza digitala landuko da. Ikastaroa maiatzaren 3an hasi eta ekainaren 14ra bitarte gauzatuko da honako egun eta ordutegietan: maiatzetik ekainera, astearte, asteazken eta ostiraletan, 18:30etik 21:00etara. Ikastaroaren prezioa 90,35 euro izanik, lantegian izena eman nahi dutenek, apirilaren 26a baino lehen Ibarrako kultur etxean edo 943 67 03 99 telefonora deituz egin dezakete.

KIROLA ▶

## Altuna II.a finalurrekoak jokatzeko sailkatu da

Zeberio II.a eta Agirrezabala, erremonte txapelketatik kanpo

I.TERRADILLOS

Gipuzkoako Erremonte Txapelketan, Bitoria eta Aizpuruk Altuna II. amezketarra eta Badiola garaitu zituzten herenegun Galarretan 40-35eko emaitzarekin. Emaitza honekin, bi bikoteek finalurrekoetan jokatuko dute.

Bestalde, Zeberio II. elduaindarra eta Agirrezabala txapelketatik at geratu dira. Berdinketa zegoen A taldeko hiru bikoteren artean, baina tanto gehien egindakoak sailkatzen zirenez, kanpoan geratu dira.

IBARRA ▶ KIROLA

## Xabi Fernandez eta Iker Martinezen ontziak errekor berria ezarri du

530 mila egitea lortu zuen ibartarraren eta hondarribiarraren taldeak 24 ordutan

I.TERRADILLOS

Xabi Fernandez ibartarra eta Iker Martinez hondarribiarra partaide diren Movistar taldeak munduko errekorra egin berri dute. Hain zuzen ere, 530 mila egin ditu hauen belauntziak 24 ordutan aurrekoak zuen marka gaindituz.

Bouwe Bekking ontziko kapitainak eman zuen munduko abiadura errekorra gainditu zutenaren berri, eta oso pozik

ageri zen lortu zutenarekin. 22,08 korapiloko abiadura lortu zuten bataz beste 24 ordutan. «Ontzia egan dihoala dirudi; zaila da deskribatzen nola ebakitzen dituen olatuak abiadura horretan», azaldu zuten gipuzkoarrek.

Albistea oso ona izan da taldearentzat, ontzia egoera onean dagoela frogatu baitute horrela. Beste edozein ontzik dituen arazoak dituela azaldu dute, baina ikutu batzuren on-



Xabi Fernandez eta Iker Martinez itsasoan nabigatzen. HITZA

doren oraindik ere azkarrago ibil daitekeela ziurtatu zuten.

Orain arte munduko errekorren jabe Robert Miller-en Mari Cha IV.a zen. 24 lagunek

osaturiko taldeak nabigatuta 2003ko urriaren 7an 525,7mila egin ahal izan zituen 24 ordutan, 21,9 korapiloko abiadurara helduz.

LEITZA ▶ KULTURA

# ‘Parle vu euskera’ antzerkiarekin herriz herri

Duela bi urteko lana berriz hartu eta hiru leitzarrak oso-osorik beraiek sortutako lana erakusten hastekoak dira

JAIONE ASTIBIA

Sergio Merino, Migel Mari Elozegi eta Kristina Urrutia dira, eta bihar dute, zonaldeko herrietan barrena antzerki jira hasteko intentzioa, beren obrarekin bost saio eskainiko dituztelarik.

*Parle vu euskera* da antzerkiaren izenburua: turismo bulego batean, bertan «egoten» den langileak oposaketak ditu eta hainbat pasadizo gertatzen zaizkio. Horixe da aurreratu daitekeena. Baina ikuslea, han ikusiko duenarekin hagitz gus-tura aterako dela ere ziurtatu daiteke, okertzeko beldurrik batere gabe. Izan ere hain dira zelebreek hango gertakizunak, baita adierazgarriak ere, bestalde.

Lan honen ezugarria, ordea, bat izatekotan, oso-osorik gazte hauek beraiek sortutako antzerkia izatea da: bai testuak,



Hiru antzezle leitzarrak bere antzezan batean. HITZA

bai interpretazio modua, bai eszenografia... Beraiek dira, autore, aktore, zuzendari eta teknikari. Antzerki zaleak dira eta besteak beste, beren aisialdian horretan aritzea gustuko dute oso.

HITZARI adierazi ziotenez, iaz aurtengo Korrika Kulturalera-ko Antzerkien Txapelketara aurkeztu ziren lan honekin: «Orduan *Malda malkor* izenarekin egin genuen, eta finalerako sailkatu zuten. Azkenean,

NON ▶

‘PARLE VU EUSKARA’

**Apirilak 8.** Etxarri Aranatzen, 22:00etan.

**Apirilak 15.** Lekunberrin, 22:00etan.

**Apirilak 16.** Ultzaman, 19:00etan.

**Apirilak 22.** Irurtzunen, 22:00etan.

**Apirilak 29.** Leitzan, 22:00etan, zinema aretoan.

saririk ez zuen jaso, *Euskaren zazpi gezur tiki* eta *Ezekiel* atera ziren», argitu zuten. Prest zuten zuten gero, emanaldiak egiteko gogoa izan zuten, baina azkenik ez zuten egiterik izan eta herri dezentetan, eskatu arren, ezin izan zuten lanik erakutsi.

Baina gogoa hor izanik, egingakoa berreskuratu eta berriz ere, moldaketa eta egokitzen batzuk egin ondoren, izenburu eta aktore berria ere tarteko (Ainara Rodaren ordez, Kristina Urrutia ari da taldean orain), orduko eskariari erantzuteko bidean jarri da hiruko hau: entsaioak egin eta prest daude atzerkiarekin gozatu eta gozarazteko.

Horrela, bada, bost herritara joanean dira bihurtik hasita. Eta azkena, oraingoz behinik behin, Leitzako bertan, zinema aretoan eskainiko dute, hilaren 29an. Adierazi zuten, gainera, emanaldi hau zehazki, Sahararen aldeko festa egiteko baliatuko dute, herriko elkartasun taldearekin batera.

LAN ISTRIPUA ▶

## Bi langile zauritu dira, gertatu diren bi istriputan

Bat Leitzan eta bestea Tolosan, biak hala biak ere eraikuntzako istripuak izan dira

J. ASTIBIA

Atzo bi lan istripu gertatu ziren eskualdean, bata Leitzan eta bestea Tolosan, eraikuntzakoak biak, eta bi langile zaurituta suertatu ziren horietan, bakoitzean bana.

Horrela, Leitzan eguerdian, etxe berritze lanetan ari zen langile bat, J. A., berastegiaren bidez, baina Lekunberrin bizi dena bera, solairu batetik bestera erori zen, bertan zeudenen esanetan, «3 metroko altueratik». Lekun bertan osasun langileengandik lehendabiziko laguntza jasota, ambulanzian eraman zuten Iruñera, ustez «erorikoak eragindako aldakako minarekin».

Tolosan, berriz, 11:40ean izan zen istripua, Andia eta Rondilla kaleen artean dagoen eraikuntza lanean, bertako langile bat, 3. solairutik lur-eraino erori zelarrik. Erantzaitzaren arabera, A. A. S. 42 urteko gizon errenteriarra da zaurituta Donostiako ospitalera eraman zutena.

LEITZA ▶ KULTURA

## ‘Bizitza miraria da’ filma ikusgai da biharkoan

Bosnian girotuta, komedia Kusturicarena da

J. ASTIBIA

Asteburu honetan, ostiral gauean, 22:30ean eta igande arratsaldean, 19:30ean, proiektatuko duten filma *La vida es un milagro* izenburu duna da.

2004ean egin zuen lan hau Emir Kusturicak. Musika aipagarriko luzemetrai honetan (154 minututakoa da), 1992ko Bosnian girotutako istorioa du kontagai egileak, gerra eta sentimenez nahastea: Luka (Slavko Stimac) Belgradoko ingeniari serbiarra, herri tiki batera joan da bizitzera, operako kantaria den bere emaztea Jadrankarekin (Vesna Trivalic) eta seme Milosekin (Vuk Kostic), eremu harren garapenerako trenbidea eraikitzen. Balka-



Filmaren kartela. INTERNETA

netako gerra lehertu ondoren, ordea, bere bizitza erabat aldatzen da, emazteak alde eta semea gerrara eramaten diotelarik. Bera baikorra bada ere, egoera bereziak biziko ditu.

ARESO ▶

## Olazabalek bihar du lehen partidua Elgetakoan

J. ASTIBIA

Bihar gauean, 21:00etatik aurrera jokatu du Mikel Olazabalek, Elgetako Txapelketako aurtengo lehen partidua.

Lehenengo astean hasi zen txapelketa hau, baina aresoar gazteak agenda nahiko bete zuelarik, aste honetara atzeratu zuen partidua. Dena den, hala ere oraindik ez omen diote arerioa, aurrez-aurre zein izanen duen adierazi.

Partidua jokatu duen Aurrerako ordezkaria Unai Ontsaloa izan da, aresoarra hau ere. Lehenengo ostiralean egin zuen, baina 22-18koarekin galduta, kanporatuta gelditu zen gaztea.



Koldo Mitxelena Kulturunea  
Urdaneta kalea, 9 • 20006 DONOSTIA  
Tel.: 943 11 28 93  
www.gipuzkoa.net/kultura

## ERAKUSKETAK

### Erakustaretoan

#### GURE MUNDUA

Oliver Boberg eta Philippe Ramette-ren argazkiak, fikzioa eta errealtatearen arteko lerro finari buruzkoak  
*Apirilaren 30a bitartean*



### Ganbaran DENBORAREN ARRASTOAN

Esther Ferreren argazkiak, denborak eta espazioak pertsonarengan duten eraginari buruzkoak. *Apirilaren 16a bitartean.*

ORDUTEGIA

asteartetik larunbatera:

10:30-14:00 / 16:00-20:30

astelehen, igande eta jaiegunetan itxita

taldeentzat bisita gidatuak astelehentik ostiralera



